

Lauargi proiektua arrakastatsua izateko eta bezeroei balio-proposamena eraginkortasunez transmititzeko, bertara hurbilduko diren bezeroen profilarekin lerrokatzen diren kanalak erabiltzea funtsezkoa izango da. Gainera gure enpresarekin harreman zuzena eta arina izateko aukera bermatzea funtsezkoa delakoan gaude. Beraz, kanaletan inbertsio handia egingo da.

Hasteko, gure proiektua edo zerbitzua berria denez, alde batetik, hedapenerako kanalak erabiliko ditugu bezeroei informazioa helarazteko eta beraien arreta deitzeko. Bestetik, behin gure zerbitzuak bazkideak dituenean, beste komunikazio kanal batzuk erabiliko ditugu. Hurrengo taulan erabiliko ditugun kanal guztiak azalduko dira:

Kanalak:	Edukiak:	Zertarako erabiliko dugu?
<u>Hedapenerako kanalak:</u>		
Webgunea	• Kokapen geografikoa • Kontaktua (nola harremandu koordinatzaileekin) • Zerbitzuaren balioak • Zer egiten dugun • Metodologia • Ekintzak • Zerbitzuaren prezioa • Bestelako informazioa	Interneten arakatzea nahiago duten pertsonak gure zerbitzuaren inguruko informazioa bereganatu ahal izateko.
Sare-sozialak	<u>Instagram</u>: Webgunean eskuragarri jarriko dugun informazioa modu bisualago batean eguneratuko dugu. <u>Tiktok</u>: Plataforma honetan bideo desberdinak igoko ditugu. Hala nola, Bilboko alde zaharretik aurkitzen ditugun gazte ezberdinei egindako elkarrizketak argitaratuko ditugu.	Sare sozialak oso tresna eraginkorrak dira. Gazteei heltzeko eta konektatuta mantentzeko modu azkar eta zuzena da.

Eskuzko kartelak	Slogan bat sortu dugu: "Piztu dezagun gure argia"	Kalean dauden gazteen arreta deitzeko eta gure enpresaren berri izateko izango dira.
Logoa		Bezeroak gure zerbitzua sinbolo konkretu batekin harremantzeko erabiliko dugu. Kanal ezberdinetan txertatuko dugu haren presentzia areagotzeko.
<u>Komunikazioa errazteko kanalak:</u>		
Whatsapp taldea	Plangintza, jardueren, berritasunen eta edozein informazio garrantzitsuren berri emango dugu honen bidez. Gainontzeko parte-hartzaileekin harremantzeko "chat" pribatua erabiliko da.	Bazkide eta koordinatzaileen arteko komunikazioa bermatzeko eta errazteko. Ustekabeko aldaketarik gertatuko balitz, hemendik emango dugu horren berri.